

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

2025eko otsailaren 26an egindako osoko bilkuraren erabakiarena. Bertaratutako kideek aho batez erabaki zuten, besteak beste, lehiaketa-prozeduraren bidez lehiaketa-kirola, protesta federatua eta eskola-kirola (2024-2025 denboraldia) antolatzeke dirulaguntzen deialdia egitea (110/2025 espedientea)

BDNS (Identif.): 819137.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/819137>).

Lehenengoa. Onuradunak

Irabazi-asmorik gabeko elkarte, kultur, kirol eta/edo gizarte elkarte publiko eta/edo pribatuak eta legez eraturta/erregistratuta dauden eta egoitza soziala Urkabustaizko udalerrian duten toki-erakunde txikiak jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.

Bigarrena. Diruz lagun daitezkeen programak

Kirol-denboraldiak eragindako gastuak, hala nola entrenatzailea, arbitrajeak, espazio-zelaia-
ren mantentze-lanak, botikina, material suntsikorra, material inbentariagarria.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza horiek emateko oinarri arautzaileak honako ordenantza honetan daude jasota: kultura, euskara, kirol eta/edo gizarte arloko jarduerak eta lehiaketa federatuko/eskola-kiroleko jarduerak antolatzeke udal dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza. Ordenantza horren testu osoa, onartutako aldaketaren ondoren ALHAOn argitaratu zen 2010eko ekainaren 18an (67. zenbakia).

Dirulaguntza horiek emateko prozedura norgehiagoka-erregimenean izango da, aurkeztutako eskabideak alderatuz, deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera lehentasun hurrenkera ezartzeko, eta irizpide horiek aplikatuz balorazio handiena lortu dutenak esleituko dira, hurrengo puntuan ezarritako mugarekin.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen arabera aurkeztutako eskabideen ondorioz ematen diren laguntzen finantzaketa 3410481000 aurrekontu-aplikazioari egotziko zaio, 2025erako aurrekontuko "lehiaketa-kirol federatua eta eskola-kirola antolatzeke dirulaguntza" gisa.

Deitu beharreko laguntzen gehieneko zenbatekoa 3410481000 aurrekontu-aplikazioan indarrean dagoen aurrekontu-kreditua izango da, 2025eko ekitaldiko aurrekontuarekin bat etorritik.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Urteko programa edo proiektuetarako eskabideak aurkezteko epea, seigarren oinarrian eskatutako dokumentazioarekin batera, hilabetekoa izango da, deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epea kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira kontuan hartuko.

Eskaera eta dokumentazioa udalaren sarrera-erregistroan aurkeztuko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz.

Seigarrena. Dokumentazioa

- Eskaera-orri ofiziala eta formularioa (I. eranskina).
- Estatutuen fotokopia, eta elkarteen eta erakundeen erregistroan legez eratuta eta izena emanda dagoela ziurtatzen duen dokumentazioa. Salbuetsita daude aurrez aurkeztu duten erakundeak, denbora-tarte horretan aldaketarik egin ez badute. Udalez peko erakundeak ere salbuetsita daude.
- Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunaren Diruzaintza Orokorrarekiko betebeharrak fiskalak eguneratuta daudela ziurtatzen duen agiria; horren orde, betebeharrak fiskalen eta zerga-betebeharren ordainketa eguneratuta dagoela adierazten duen zinpeko aitortzen bat aurkeztu ahal izango da (II. eranskina).

Zazpigarrena. Justifikazioa

Dirulaguntzen erakunde onuradunek 2025eko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dituzte agiriak. Hala ere, dirulaguntzaren ebazpenean memoria eta justifikazioa aurkezteko beste data bat agertu ahal izango da.

Erakunde onuradunek aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Diruz lagundutako proiektuaren edo programaren memoria (III. eranskina).
- Zinpeko aitortzena (II. eranskina), beste administrazio, organismo edo erakunde publikoren batetik diru-aguntza edo laguntzarik jaso den edo ez adierazten duena. Eta jarduerak eragindako sarrera eta gastu guztien balantzea. (IV. eranskina).
- Fakturak eta ordainagiria/banku-kontuaren mugimenduen laburpena/ tiketa, eta ziurtatutako kopurua honakoaren parekoa izan behar da, gutxienez: emandako dirulaguntza, gehi erakundeak egindako ekarpena(gutxienez ehuneko 20, edo dagokion ebazpenean adierazten dena).

Izarran, 2025eko martxoaren 13an

Alkatea

XABIER ALVAREZ DE ARCAJA FERNANDEZ DE LANDA